

**NONDIK NORA HAINBESTE INTERES
*JESUS GIZONAREN INGURUAN?***

Itauna jakin-minez betea da. Ikerketaren historia osoa markatu dau, eta aurretiaz giza esperientzia guztia astindu. *Jesus gizonaren* aurrean atxikimendu sakon eta estua edota ukapen istilutsua izan ditugu eguneroko ogi gizaldietan zehar. Eta gure egunotatik begituz, interes maila ezbardinak aitatu geinkez.

1. Pasa dan gizaldiko 50eko hamarkadara arte oraindik, Sobiet Batasuneko Zientzien Entziklopediak eritzi eta afirmazino hau eskeintzen eban “Jesu Kristo” hitzari buruz: oinarri historiko gabeko pertsonaia mitikoa, bere jarraitzaileek asmatua. Argia zan aurreeritzi ideologikoa, nahiz eta modu deigarritz kontraesana eta kontrajarria aurkitu Salbatzaileari eskeinitako Rublev handiaren eleiza dotoreen presentziaz. Izan ere, eleiza bikainok, Kremlin barruan Lenin beraren gurariz jagonak aurkitzen ziran, 1917ko iraultza baino askoz aurreragotik, Errusiako arima handiaren lekuko ahaztuezin modura. Behingoan bururazten jat itauna: irauin ete daike, gizaldiak zehar, hainbeste gertaera ikaragarritz eta saminez jotako herri baten fedea jarraitzaileek asmatuiko pertsonaia baten oinarritua izanik?

Jesusi buruzko lehenengo eta oinarritzko mailako interesa deitzen deusat honi; izan ere, haren errealitate historikoan, gizakoian –gizakoa baino gehiago dan arren– sustraitzen da his-

toria, herri osoen biziraupenaren historia, lehenengo martirien aldietatik hasi eta ekaitz nazista eta komunistara eta gaurko erregimen totalitarioetara arte. *Jesus, liburuetan baino lehenago agertzen da idatzia, gehiago oraindik, inskribatua, ikasleen bizitzan idatzia* (M. Pomilio). Esan daikegu, Jesusen giza izateari buruzko interesa, ez azaleko eta nontzebarri hutsezkoa, berarengan inspiratzen diran pertsonen giza izatean harek dauan eraginean agertzen dala. Testigurik ez bada, zeozelan, Jesus desagertu edo hutsaldu egiten da. Beraren aukera izan da, haren bidez bere burua esatea, adieraztea, ispilu batean bezala. Eleizeak, halan ere, eginkizun eder eta itzelezko hori bermatu egin behar dau!

2. Jesus gizonak eragiten dauan interesa baloratzeraz hurreratzeari, behingoan adierazoz behar dogu, lehenengo kristau jatorrietatik hasita, gorabehera edota balantzada bat gertatu dala: haren giza izatea goratzea, batetik, Jainkoari erreferentziarik egin gabe, are gehiago, Jainkoagazko loturaren kontra, eta, bestalde, Jainkoagazko lotura estu, ezinbestekoa dauan gizon modura ikustea.

Lehenengo kasuan, Jesus gizonarengan enfasia jartzeak 60-70 hamarkadetan anglosaxoniarrak giroan ateismo kristauari buruz berba egitera bultzatu izan dau; hau da, Jesusen handitasuna Jainkoagandik bananduta jaso behar da, izan ere jainkozkoan eta betikoan sartzearen bildurrez, haren aurpegi historikoa desagertzeko arriskuan jarriko balitz lez, eta haren behinolako probokatzeko almena galduko balitz lez, eta Jesus gizonari buruz paradoxikoki esan izan da: “Existituko ez balitz, asmatu egin beharko litzateke”.

Baina kontrajartze horren dialektika faltsua alde batera itzirik, gauza bat doa lekua egiten nahiz sinestedunengan nahiz fedegabeen artean: profila adierazte aldera, saiaketa ezbardinak egiten dira, aurreulermen pertsonalaren eraginez ezinbestean, nahiz eta eztabaidagarria izan, ezpai gabe, aurreulermen hori, baina hor azaltzen dira egia eragin muin batzuk, argiago edo ilunago.

Ikuspegi molda honetan aitatu geinkez: Jesus “sozialista”, edota zapalduen defentsan diharduan heroi iraultzailea (Frantziako iraultzatik eta neomarxistara eta garapen bidean diran herrialdeetakora) (R. Garaudy). Hor da baita errugabe sufritzen dauan hori, guztiekaitik ordaintzen dauan espiaziozko aker dalakoa (R. Girard). Gorengo mailako eredu etiko lez ikusi izan dana ere, Oriana Fallaci idazleak esan eban modura, berak ziurtatzen dau norbanakoaren askatasuna eta, ondorioz, haren ekintzen erantzukizuna, baita ez eginezkoan, pentsamentuen eta sentimenduena ere. Izan dira, baita, Jesus giza gogoaren ezagutzaile sakon lez interpretatu izan dabena, berebiziko psikoanalista lez, bardinik gabeko terapeuta eta osagile lez; haregaz hartu-emonean sartzean, “mirari eran” osatuak geratzen gara (H. Wolff). Herri erlijionotasunean sendo irauten dau Jesusi buruzko halango irudiak: pobreen-gana, txikiengana, ondaregabeengana, azkenengoengana, atzerritarrengana makurtzen danarena; Jesus da besteen pasinoa bere pasinoan leporatzen dauana. Erlijino arteko alkarizketetan, aparteko pertsonaia karismatikotzat jotzen da, bakarra, edozein pertsonaiari hitz egiteko gaitasuna daualako, bera da gogorkeria gabeko eta bakezko gizonaren gorenengo “ikonoa”, hormak hausten dituana, itxaropenari ortzemugak zabaltzen deutsozana.

3. Goian seinalatu barri doguzan zirrimarra eta bereizgarri geienak, bateragarriak dira Jainkoaren misterioarekin, Jesusek Jainkoa aurkezteko dauan moduaren arabera behintzat. Jesusentzat Jainkoak, “Aitak”, berak deitzen deutson moduan, ez dau Jesus banatzen bere benetako gizon izatetik, gehiago oraindik, Aitak gura izan daualako jaió da gizon lez Jesus. Jesusen giza izatean agertzen da Jainkoaren izate bera. “Ni ikusi nauanak, Aita ikusi dau” (Jn 14,9).

Ulertuko dogu, orduan, bereizgarri honeek erabat dirala gizatiarrak eta gizakoiak Jainko misterioak ikutuak diralako. Idazle askok adierazo dau hori eta idatzi izan dau horretaz.

Gogoan dodaz aspalditxo irakurri nebazan liburu batzuk: “Jesus, Kristoa” (K. Adam), “Jauna” (R. Guardini) eta baita orain-tsuko “Nazareteko Jesus” (Benedicto XVI.a) eta beste liburu ugari, euron artean eztabaidea, laudorioa eta kritikea eragin dauan gure J. A. Pagolaren “Jesus. Hurbilketa historikoa”, liburu benetan dokumentatua, sakona, gozoa eta mesedegarria.

Jesus “gizona”ri buruz “identikit” modukoa, haren pertsona osoari dagokiona, agertu gurako neuke, gorago batu dodazan interes zabalak jasoz eta beste batzuk ere biztuz eta sorrerazoz, ebanjelioetako iturriek proposatzen deuskuenez.

- *Jesus, bene-benetako gizona da, ez gizon itxura hutsa dauana edota gizona dalakoa egiten dauana, jaiotzatik eta heriotzara arte. Garraztasun saminak bizi izan ditu, negarrez ikusi dabe, bildur izan da (Lk 19,41; Jn 11,35; Mt 26,39), alaitasuna bizi izan dau, ezkontzeta-koa (Jn 2,1-11), harrera onarena (Lk 10,21). Ez da bizi izan bere burua argizko koroez inguratuta, bai zera!*
- *Jesusek “ni” berezia agertzen dau, bakar-bakarra*
 - osagai sendo kontrajarriak buztartzen dituan “ni”a: samurtasuna (Mk10,13) eta setakeria eta hasarrea ere (Mk 3,5; 10,14);
 - bere buruaz seguru, erabat seguru dagoan “ni”a: “Baina nik dinotsuet” (mendiko berbaldian);
 - “ni” erabakiorra gizon-emakumeen etorkizunerako, arau eta balore absolutu eta erabatekotzat bere burua proposatuz (Mt 10,32)
 - Jainkoarentzat eta gizakientzat askea botere politiko eta erlijiosoko taldeen aurrean, baita legearen aurrean ere, hau pertsonaren duintasunaren aurrean zapaltzaile bilakatzen danean (Mt 23; Lk 11,37; Mk 2,27; 12,13).
- *Jesus, gatxetik askatzen dauan maitasunean, besteentzat zabalik dagoan gizona*

- Jesusen gizakiarenganako maitasuna konstante iraunkorra da haren existentzia osoan (“on egiten eta deabruaren menpe egozan guztiak osatzen igaro eban bere bizitza” (Eg 10,38). Haren maitasunak lehentasuna emoten deutse gizon-emakume gitxituei, alboratuei: pekatariei, gaixoei, umeei, izengabeei, baztertuei (emakumeei, adibidez).
- Haren biziera samurtasun adore emoilezkoa da: “Ni gozoa eta bihotzez apala naz” (Mt 11,28-29).
- Askapen eta salbazino helburuaz, Jesusek bat egiten dau gizakiarekin: mirariak, exortzismoak aparteko eran, filantropia keinu huts baino gehiago dira; “gizon” honen nahia adierazten dabe: laguntza eskeini gizon-emakumeei, itxaropen indar barria berreskuratu dagien, berarengan ohikoa zan harako “ez bildurrik izan” ha guzti-guztiek esperimentatu dagiela. Ekatxa danean, han da beti bera (Mk 4,40).
 - *...eta gorako, Aita maitatua (Abbà) deitzen dauanarenganako, Jainkoarenganako zabalik, semeari dago-kion barru-barruko hurkotasunean*
- Hona hemen Jesusen existentziaren alde misterioitsu eta gun-gunekoa: haren jarrera erlijiosoa, ezaugarri argitan azaltzen dana: Jesusek otoitz egiten dau, ez bakarrik bere aldiko ohituretan parte hartuz; bere-bere otoitza, pertsonala egiten dau, gau osotan zehar (Lk 6,12): benetan giza moldakoa dan otoitza burutzen dau eskerrak emonez (Mt 11,25) eta bere neke-samin eta nahigabeak agertuz (Mk 14,32). Jesusek hartu-emon sakon eta samurra bizi izan dau Jainkoagaz, “Abbà”, aitatxo deitzeraino (Mk 14,34). Hartu-emon honek Jainkoagazko identifikazio moduko batera eroango dau (Mt 11,27; Jn 16,32). Hortik bereganatuko dau indar eta kemen bultzatzailea, giza-era hutsean ezinezkoa dan misinoa bete eta burutzeko: hiltera, heriotzara joan, Aitaren gizakionganako maitasunaren autormena egiteko.

4. Azken lerro honeek ondorio batera garoez: Jesus gizon apartekoa bada, bere eztabaida ezineko erakargarritasun ahalmenaz, horrexegaitik dala: Aitagazko alkartasunaren eta batasunaren seilua daroalako, Eleizeak “Jainkoaren Seme” berbeaz adierazten dauan komuninoa daualako. Beste era batera esanda, sustrai-sustraien ikuspegi honetatik Jesusen giza izatea ikusteak badau esangura sakona eta helburu batera bultzatzen gaitu: beragaz topo egin, harridura geureganatu eta beharbada haren giza doeak imitatu eta, horrezaz ganera, harekin barru-barrutik bat egitera bideratu, haren sekretua jaso eta alkarbanatu, haren jainkozko izatean parte hartu, kalitatezko giza bizi-modua hazurmaminduz (izan gogoan S. Frantzisko bat edota ama Teresa bat). Bakarrik Jainkoa izan eitekean hain gizatiarra, Jesus bezala; bakarrik Jesus gizonak emon ahal izan deusku gizon-emakumeoi Jainkoari buruzko holango ikuspegia, zati-kakoa baina egiazkoa eta sinesgarria Jainkoa benetan nor dan geureganatu daigun.

Jokatu daigun zuhur! Jesus ezagutzeko gogoan eta interesean aurrera egin gura badogu, errespetatu daiguzan harek gure artean existitzeko aukeratu ebazan bideak: giza aurpegiko Jainkoa eta jainkozko aurpegiko gizona, pertsona berean.

Nazaretoko Jesus guretzat
bene-benetako gizon
errukiz eta maitasun hutsez
arduratsu gaitu jagon
Aitaren nahia erabat betez
bizitza osoa emon
gure garapen eredu argi
edonoiz eta edonon
**ager deiogun gizaki danok
bihotzez geure esker on.**

Lontzo Zugazaga